

BERANGOKOAK ASKE, ONGI ETORRIAK LIBRE!!

BERANGOKOAK ASKE, ONGI ETORRIAK LIBRE!!

Berangokoak aske, ongi etorriak libre! leloa zabaltzen duten kartelak eta pankartak nonahi ikusi ahal ditugu Euskal Herriko zazpi herrialdeetan. Kanpaina horren helburua da salatzea, Ibai Aginaga presoari ongi etorria antolatzeagatik, Madrilen, hamasei euskal herritarren aurka egingo duten epaiketa. Hainbat herritan, auzia ezagutzera emateko, sostengu taldeek batzar irekiak antolatu dituzte eta auzipetuen testigantza bertatik bertara entzuteko eta haiekin hitz egiteko aukera ere izan dugu. Ekainean hasiko den epaiketari begira, Berangokoekin Elkartasun Komiteko kideok maiatzaren 30ean, Algortan hasi eta Berangon amaituko den manifestaziora batzeko dei egin dugu. Ekitaldi horretan aukera izango dugu auzipetuei elkartasuna eta maitasuna adierazteko eta euskal herritarron eskubide zibil eta politikoen defentsa irmo eta ozena egiteko ere.

Ekainaren 8an hasi eta hiru aste iraungo duen makroepaiketan, Ibai Aginaga preso ohi berangoztarra eta, 2022ko martxoan, haren omenez antolatutako ongi etorrian parte hartu zuten hamabost lagun epaituko dituzte, terrorismoari gorazarre egitea leporatuta. Fiskaltzak 36 urte arteko espetxe zigorra, 171 urteko inhabilitazioa eta 75.000 euroko isuna eskatzen du hamasei auzipetuentzat. Epaituko dituztenen arteko bederatzi preso ohiak dira eta, horrexegatik, haientzako espetxe zigorra bete behar izateko arriskua benetan handia da. Auziperatutako jende kopuruak eta eskatzen duten zigorren gogortasunak agerian uzten dute Espainiako estatuak zartailua indar guztiz erabiltzen jarraitzen duela makurtzen ez diren independentisten aurka.

Rosa Luxenburgok esan omen zuen mugitzen ez denak ez dituela kateak sentitzen. Zapaltzaileak normalitatea deitzen dio bortxazko egoera horri eta zapalduak bere egiten duenean, ikusezin bihurtzen da. Horrela gertatzen da zapalkuntza mota guztietan. Euskal Herriaren zapalkuntzak denboran iraun dezan, beharrezkoa da hura normaltasunarekin nahastea. Hori gertatzen denean, zapalkuntza da normala, zuzena eta arrazionala dena eta horren kontra altxatzea, berriz, anomalia bat, joera biolentoa dutenen jokabide irrazionala. Baina, Azurmendik esan zuen bezala, Zesarren kontakizuna eta haren sukaldariarena ez dira berdinak. Ezberdintasun hori agerian uzten dutelako kriminalizatu nahi dituzte ongi etorriak, nazio zapalduaren ikuspegia gizarteratzen dutelako eta normalitatearen mozorroaren atzean izkutatu nahi dena ikusgarri egiten dutelako: Euskal Herriaren egoera koloniala eta inperialismo espainol eta frantsesaren aurkako etenik gabeko borroka.

Jakinen, Cira Crespok Ramón Grosfogueli, teoria dekolonialaren sortzaile nagusienetakoari, egin berri dion elkarrizketa mamitsuan esan du epistemologikoki ere menderatuta gaudela. Izan ere, Cresporen arabera, espainiar inperialismoaz hitz egiten denean harritu egiten gara, euskaldunok ez baitugu gure zapalkuntza kategoria horrekin identifikatzen. Grosfoguelen arabera, hori gertatzen da abertzaleek ezker espainiarrekin egin dituzten aliantzengatik, horiek lortzeko gatazka beraren existentzia ukatu egiten da eta, ondorioz, gertatzen zaiguna Espainiako ezkerraren eskemekin interpretatzen dugu. Baina Grosfoguelek ez du zalantzarik, inperialista da Espainiak Euskal Herriaren kontra erabiltzen duen indarra eta Espainiako ezkerra inperialismoaren aurpegi atsegina baino ez dugu, antiinperialista yankiak dira, baina inperialista espainiarrak. Grosfoguel, Franz Fanon edo Azurmendi irakurri gabe ere edo teoria dekolonialaz ezer jakin aurretik, Euskal Herrian, de facto praktika dekolonialak diren ongi etorriak egitea ohikoa izan da, bizi dugun menderakuntzaren kontzientzia izan dugun bitartean.

Lurraldearen zatiketa administratiboa, euskararen kontrako legeak, ondare naturalaren ustiaketa arrotza, historiaren desitxuratzea, kulturaren gutxiespena eta abertzaleen gorputzak txikitu eta giltzapetzea, denak dira zapalkuntza kolonialaren formak. Horiek guztiek erakusten dute zergatik eta nola ez garen nazio bat. Baina, filosofo frantsesak esana da, kontua ez da egiten digutena, egiten digutenarekin egiten duguna baizik. Euskal Herriaren zapalkuntzaren historia bezain luzea da zapalkuntza horren aurkako borrokarena. Askotarikoak dira gaur egun ere zapalkuntzaren eta errepresioaren aurkako ekimenak; ikusi ditugu iparraldeko gazteak hizkuntza eskubideen defentsan intsumisioa aldarrikatzen, Baztanen lurraren defentsan altxatu ziren Aroztegiaren aferan eta, berriki, frantziar estatuaren errepresioa salatzeko eta hari aurre egiteko manifestazioa egin dute Baionan. Euskal Herri independiente eta askea nahi dugulako, kapitalismoaren eta patriarkatuaren aurka borrokatzeko antolatzen gara. Zeren lotzen gaituen katearen luzera gainditzen dugunean, agerian gelditzen dira zapalkuntza eta menpekotasun egoerak.

Nazioartean ikusten ari gara inperialismoaren oldarraldi ankerra, baina baita hari aurre egiten dioten herrien duintasuna ere. Palestinarren jarrera irmoak hunkitzen gaitu eta eredugarri iruditzen zaigu, eta berdin iraniarrena, baina baita saharararrena, kubatarrena eta amore ematen ez duten beste herri azpiratuena. Euskal Herriaren independentziaren aldeko borroka ere inperialismoaren aurkako borroken artean kokatzen da. Berangoko ongi etorriaren auziak eta auziperatuen jarrera tinko eta duinak gatazka hori ikusgarri egiten du, gogoratzen baitigu nortzuk garen eta askatasuna *manu militari* nortzuk lapurtu diguten. *Berangoko hamaseien* auziak batasunaren aldeko deia egiten digu Euskal Herriaren zapalkuntzaren kontzientzia dugun guztioi. Horregatik, auzipetuei babesa eta elkartasuna adierazteko, euskal herritarron eskubide zibil eta politikoen defentsan eta Euskal Herriaren independentziaren alde, maiatzaren 30ean, Algortatik Berangora, *Batu borrokara!!*

hija de ANTOLIN , de Leioa